



◆ "10. Lilatoia dela eta, kartelak jarri dituzte kalean. Kartelak elebitan daude, hala ere, euskarari lehentasuna eman zaio"

Euskararen barnetik eta ataritik



◆ "Tango argentinarra ikasteko ikastaro trinkoa antolatu zuen Euskal Herria kaleko dantza akademia batek. Hori iragartzeko jarritako kartel guztiak gaztelera hutsez zeuden".

Euskararen alde egiten dena txalotu eta euskararen kontra egiten dena aipatzeko aukera duzu 943-43 12 28 tfnoan.

Guardia Zibilaren aurkako atentatua

Zortzi lagun zauritu ziren Intxaurrendon

Joan den astelehen gauetan, hilak 6, Guardia Zibilaren furgoi baten aurkako atentatua egin zuten Intxaurrendoko Zarategi pasealekuan. Atentatua 21.45ak aldera gertatu zen. Bonba-kotxe batek eztanda egin zuen, ondotik Guardia Zibilaren patruila bat pasatzerakoan, eta furgoi barruan zihozten bi guardia zibilak eta sei herritar zauritu zituen. Inor ez zen oso larri zauritu, ordea, eta guardia zibil bat eta beste neska bat izan ezik, gainerako guztiak asteartean bertan atera ziren eritexeatatik. Zaurituz gain, bonba-kotxeak kalteak eragin zituen Zarategi pasealekuko hainbat etxebizitzatan. Hori dela eta, Udalak bi familia aterpetu behar izan ditu erresidentzia banatan. Españiako



Bonba-kotxeak kalte handiak eragin zituen Zarategi pasealekuan.

Barne Ministerioak ETari leporatu dio atentatua.

Alderdi politiko gehienek eta hainbat sindikatu eta erakunde Intxaurrendoko atentatua gaitzetsi dute. Donostiako Udalean ordezkaritza duten alderdiek ere halaxe egin dute. EHK, ordea,

ez du bat egin onartutako adierazpenarekin. Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak atentatua arbuizatzeko kontzentrazioa deitu zuten asteartean Zarategi pasealekuan. Mila bat lagunek parte hartu zuten deiadi horretan.

MOKO eta KAPMELE

LEHENGOAN "TRICICLE" IKUSI NIAN...



EZNEKIEN TXIRRINDUZALEA HINTZENIK!

